

## FUNTSEZKO ELKARTEAK



Kide proiektuko kide bakoitzaren inbertsioarekin jarriko litzateke martxan. Izan ere, kide bakoitzak 9.000€ jarriko ditu lehenengo gastuei aurre egiteko eta proiektua aurrera emateko.

Negozio eredu batek funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkideen sareak osatzen ditu funtsezko elkarteak. Enpresa batek beste batzuekin aliantzak egin ditzake ondorengo arrazoiak direla medio:

- negozio-eredua optimizatzeko
- arriskuak murrizteko
- baliabideak eskuratzeko



Gure kasuan, aliantza polikiroldegiarekin eta hornitzaileekin egingo dugu. Horregatik, haiekin lan zuzena egingo dugu eta hortaz, beraiekin elkartuko ginateke, zerbitzu egoki eta onak eskaintzeko. Polikiroldegiaren kasuan, haiei igerilekua alokatu egingo diegu 4 egun astero bi ordu. Bestalde, hornitzailearen kasuan, igeri egiteko erabiltzen ditugun materialak erosiko diegu behin guk egindako diseinua bidalita.

Izan ere, hainbat ikastaro emango direnez eta bezeroek arreta handia behar dutenez, Eiderrez gain irakasle bat baino gehiagorekin kontratakotu dugu.



Proiektuan, kide bakoitzak funtsezko baliabide bat jarriko du.


Gure taldean,

**Sofia:** Esperientzia beste lan batzuetan lider izaten. Taldea behar bezala eta ordenatuta zuzentzen du.



**Uxue:** Oso ona da zenbakiekin eta kalkuluekin. Berak zuzenduko lituzke enpresaren kontuak eta egin daitezkeen eskaintzak

**Aitana:** Kreatiboa eta irudimena izateagatik, produktu berriak eta komunak diseinatuko lituzke. Webgunea ere egiten du.



**Eider:** Kiroletan ona denez, berak eraman ahal izango lituzke klase-saioak, langileak kontratatuz eta zuzenduz.